

2013-07-23ko EZOHIZKO UDALBATZA

Iruran, bi mila eta hamahirugarren urteko uztailaren hogeita hiruan, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan, batzar ezohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Gorka Murua Macuso, Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Noelia Lataburu Ortiz, Olaia Nieto Legarra, Yosu Yurrita Loitegui, Tomás Etxeberria Sarasola.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Ainara Mugika Iruretagoyena.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta honen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

LEHENBIZIKO GAIA

UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2013-06-25).- 2013ko ekainaren 25eko ohizko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

BIGARREN GAIA

TRAFIKO ORDENANTZAREN ALDAKETAREN HASIERAKO ONARPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO.-

Irurako Udalak, 2003ko otsailaren 4an, Zirkulazioa arautzen duen Ordenantza onartu zuen eta 2003ko apirilaren 11n argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Por este Ayuntamiento de Irura, el 4 de febrero de 2003, se aprobó la Ordenanza Municipal de Circulación y se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 11 de abril de 2003.

Ondoren, 2010eko uztailaren 20an, San

Posteriormente se introdujo una

Migel Plazaren oinezkoentzako erabilera erregulatzeko aldaketa sartu zen.

Orain, azken erabakiaren aldaketa onartu nahi da. Izan ere, ibilgailuak plazara sartzeko ordutegia aldatu nahi da.

Ogasun, Kontu eta Administrazioako Batzorde Informatiboak aldeko proposamena onartu du gaur egindako bileran.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du

ERABAKIA

1.- Hasierako onarpena ematea Zirkulazio arautzen duen Udal Ordenantzaren 2. aldatetari, lehen aipatu den proposamenaren arabera. Dena dela, ordutegi berria ezarriko den eguna Alkatearen esku utziko da.

2.-Espedientea jendaurrean jartzea 30 egun baliaduneko epeaz, gutxienez, iradokizunak eta erreklamazioak jarri ahal izateko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiarekin bitartez.

3.-Erreklamazio edo iradokizunak ez badago, behin betiko onartuko da eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratuko da, eta Ordenantzaren testu bateratua argitaratuko da.

Bestela, epe barruan aurkeztutako erreklamazio eta iradokizunak baldin

modifikación para regular el uso peatonal de la Plaza San Miguel con fecha 20 de julio de 2010.

Ahora se quiere modificar este último acuerdo con la modificación del horario de acceso de vehículos a la Plaza.

La Comisión Informativa de administración, cuentas y bienes en sesión celebrada el día de hoy ha resuelto favorablemente la propuesta.

Ante ello, y por unanimidad de los presentes, se adopta el siguiente

ACUERDO

1º.-Aprobar con carácter inicial la 2ª Modificación de la Ordenanza Municipal de Circulación, según dicha propuesta. En todo caso la fecha de la implantación del nuevo horario queda en manos de la Alcaldía.

2º.-Someter el expediente a información pública por el periodo de 30 días hábiles, para la presentación de reclamaciones y sugerencias, mediante la publicación del anuncio correspondiente en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3º.-En el caso de que no se presenten reclamaciones o sugerencias, el acuerdo se entenderá aprobado definitiva y se publicará el texto completo del mismo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. En este sentido se publicará el texto refundido de la Ordenanza.

En el caso de presentación de reclamaciones y sugerencias en plazo, la aprobación definitiva corresponde

badaude, Udalbatzari dagokio behin al Pleno.
betiko onarpena ematea.

HIRUGARREN GAIA

2 URTEKO HAURRAK ESKOLARATZEKO 2013/2014 IKASTURTERAKO IRURAKO IKASTOLAREKIN EGINDAKO HITZARMENA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Irurako Ikastolak bi urteko gelarako diru-laguntza eskatu ohi du urtero. Hori dela eta, Udalak hitzarmen bat sinatuko du Irurako Ikastolarekin. Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du

ERABAKIA

Lehena.- Aipatutako 2013/2014 ikasturterako hitzarmena ontzat ematea arauen arabera, eta Ainhoa Ugalde Gorostiaga Irurako Udaleko alkate-lehendakariari Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Bigarrena.- Diru-kopurua jaso aurretik, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorak ezarritakoaren arabera, onuradunak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Nortasunaren egiaztagiria aurkeztea
- b) Legearen 13. artikuluan adierazten diren egoeretan ez dagoela zinez aitortzea.
- c) Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko du(t)en ziurtagiria(k) aurkeztea.
- d) Aurkeztea, behar denean, baimendutako ordezkariak eginiko idatzia, ordaintzeko modua zehaztuz.

LAUGARREN GAIA

UDAL BIDE PUBLIKOEN BTT ERABILERA KO HITZARMENA ONARTZEA TOLOSALDEA BTT ZENTROAREKIN, HALA BADAGOKIO.-

Tolosaldea BTT Zentroak BTT kirol erabilera sustatu nahi du Tolosaldean eta, horretarako, hitzarmena sinatu nahi du Tolosaldeko udalekin, beraien landa eta mendi bideak erabiltzeko.

Ogasun, Kontu eta Administrazioiko Batzorde Informatiboak, gaur egindako bileran, aldeko proposamena onartu du.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez onartu du honakoa:

ERABAKIA

- 1.-Aipatutako hitzarmena onartzea.
- 2.-Ainhoa Ugalde Gorostiaga Andrea Irurako Udaleko alkate-lehendakariari hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

BOSGARREN GAIA

IRAKASKUNTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA HALA BADAGOIO.-

Hainbat irakaskuntzarako erakundek diru-laguntza eskatu dute. Gaia aztertu ondoren, Euskara Batzorde Informatiboak, 2013ko maiatzaren 21ean eginiko bileran, aldeko proposamena egitea onartu zuen. Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA

Diru-laguntza hauek onartzea eta ordaintzea:

- Ibilaldia: 195 €
- Araba Euskaraz: 195 €
- Kilometroak: 195 €
- Nafarroa Oinez: 230 €
- Herri Urrats: 285 €

SEIGARREN GAIA

EUSKALGINTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Euskalgintzako erakunde batzuk diru-laguntza eskatu dute. Gaia aztertu ondoren, Euskara Batzorde Informatiboak, 2013ko maiatzaren 21ean eginiko bileran, aldeko proposamena egitea erabaki zuen. Hori ikusita Udalbatzak aho batez hau erabaki du:

ERABAKIA

- 1.-Kontseilua Erakundeari 300 euroko diru-laguntza ematea eta ordaintzea.
- 2.-Galtzaundi Euskara Elkarteari, 2013an burutuko dituen euskara sustatzeko jarduerak babesteko 2.000 euroko diru-laguntza ematea. Baina diru-kopurua jaso aurretik, arazoaren 17ko 38/2003 diru-laguntzen Lege Orokorrean eta Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera, baldintza hauek bete beharko ditu:
 - a)Nortasunaren egiaztagiria aurkeztea.

b)Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria aurkeztea, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.

c)Udal ordenantzaren 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazten duen idatzia aurkeztea.

d)Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak aurkeztea.

ZAZPIGARREN GAIA.

TOLOSALDEKO HEDABIDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.-

Tolosaldeko Hedabideek diru-laguntza eskatu dute eskualdeko proiektu bateratua aurrera eramateko (Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L.).

Euskara Batzorde Informatiboak, 2013ko maiatzaren 21ean eginiko bileran, aldeko proposamena egitea onartu zuen.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

1.-Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.L-ri 7.100 euroko diru-laguntza ematea onartzea, baina diru-kopurua jaso aurretik, arazoaren 17ko 38/2003 diru-laguntzen Lege Orokorrean eta Udal Ordenantzan ezarritakoaren arabera, baldintza hauek bete beharko ditu:

a)Nortasunaren egiaztagiria aurkeztea.

b)Banketxe edo aurrezki kutxak sinatutako agiria aurkeztea, kontu korrontearen titularra bera dela egiaztatzen duena.

c)Udal ordenantzaren 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen direla adierazten duen idatzia aurkeztea.

d)Foru Ogasun eta Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatuko duten ziurtagiriak aurkeztea.

2.-Info7 Irratia-Aztibegia Elkarteari 200 euroko diru-laguntza onartzea eta ordaintzea.

ZORTZIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Ez da galde-erregurik egon.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena **EGIAZTATZEN** dut idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA